ZUZENBIDE FAKULTATEA
FACULTAD DE DERECHO

JUSTIZIA SOZIALAREN ALDEKO KLINIKA JURIDIKOA
CLÍNICA JURÍDICA POR LA JUSTICIA SOCIAL

**ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA / ACTA DE REUNIÓN DEL CONSEJO DE DIRECCIÓN**

**Data/Fecha**: 2016ko urriaren 13a / 13 de octubre de 2016
**Tokia/Lugar**: Zuzenbide Fakultateko Clara Campoamor Aretoa
**Ordua/hora**: 11:30

**AZTERGAIAK:**

1. Zuzendariaren agurra
2. Klinika Juridikoaren proiektuari buruzko informazioa.
3. Klinika Juridikoaren formakuntza-plana 2016/17
4. Norberak lekarkeena

**ORDEN DEL DÍA:**

1. Saludo de la Directora
2. Información general acerca del proyecto de la Clínica Jurídica.
3. Plan de actividades formativas para el curso 2016/17
4. Ruegos y preguntas

**Bertaratutakoak/Asistentes**

Maggy Barrere Unzueta (Zuzendaria)
Juana Goizueta Vertiz (Zuzendari Delegatua)
Joseba Ezeiza Ramos (Idazkaria)
Ana Pérez Machío
Ana Rosa González Murua
Carmen Agoues Mendizabal
Fernando Tapia Alberdi
Itziar Alkorta Idiakez
Leire Imaz Zubiaur
Oihane Vergara Pueyo
Oscar Abalde Cantero
Oscar Arroyuelo Suárez
Teresa Pascua Martín

**Ezin etorria adierazi dutenak/Excusan asistencia**

Iker Barbero González
Juan Aldaz Arregui

**EZTABAIDAK ETA ERABAKIAK:**

**1. Zuzendariaren agurra**. Maggy Barrere, JSKJaren zuzendariak, Zuzendaritza Kontseiluko kideak agurtu, eta bere esker ona adierazi die proiektua babestu, eta osatze-bilerara bertaratzeagatik. Era berean, Zuzendari Delegatua (Juana Goizueta) eta Idazkaria (Joseba Ezeiza) aurkeztu ditu. Azkenik, jakinarazten da Beatriz Lucas lankidea esleitu zaiola JSKJari kudeaketa-lanez eta zeregin administratiboez ardura dadin

.

**DELIBERACIONES Y ACUERDOS:**

**1. Saludo de la Directora**. Maggy Barrere, directora de la CJJS, inicia la reunión expresando su agradecimiento a las personas que han aceptado formar parte del Consejo de Dirección. Seguidamente, anuncia el nombramiento de Juana Goizueta y de Joseba Ezeiza como Directora Delegada y Secretario, respectivamente. Igualmente, se anuncia que Beatriz Lucas ha sido designada para encargarse de las actividades administrativas y de gestión de la CJJS

**2. JSKJaren proiektuari buruzko informazioa:** Jarraian, zuzendariak JSKJaren misioa, helburuak eta baloreak laburbildu ditu, eta nabarmendu du proiektu honek, sustatzaileen aldetik, eskatzen duen babesa eta ekimena.

JSKJak, funtsean, hiru alorretan eragin nahi du: a) diziplina juridikoen irakaskuntza-eredua; b) diziplina juridikoetako profesionalaren eredua; eta c) gizartean erroturik dauden estrategia baztertzaile sistemikoak.

Horretarako, bi bide jorratuko ditu: a) prestakuntzarena; eta b) gizarte arloko elkarte-sarearekiko lankidetza-harremanena. Bi estrategia hauek helburu erkide eta integratu bat dute jomugan: JSKJaren helburuak erdiesteko ezinbesteko diren oinarri teoriko eta metodologikoak finkatzea, eta esku-hartze estrategiak adostea.

Formazio-prozesuaren garrantzia nabarmendu da, hori baita ikuspegiak eta praktikak aldatzeko lehen baldintza. Baina, formazio hori eraginkorra izango bada, lankidetzan eta gizartearen errealitatean ainguratu beharko dela ere azpimarratu da; betiere, eremu akademikoa unibertsitatetik kanpokoarekin uztartuz.

Baliabideei dagokienez, GZKJak ahulezia nabarmenak ditu (oraingoz) alderdi ekonomikoan. Alabaina, hainbat bide jorratuko dira nolabaiteko egonkortasuna lotze aldera. Giza baliabideen alorrean, berriz, GZKJak egoitza egokia eta lan administratiboez arduratuko den langile bat izango ditu. Horrek aukera eskaintzen du egunez eguneko jarduerari normaltasunez eusteko. Hala ere, GZKJaren Zuzendaritza harremanetan dabil UPV/EHUz kanpoko erakunde batzuekin (Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Emakunde, GKE batzuk...), aztertzeko haien sostengua eskuratzeko aukera.

Edonola ere, Zuzendariak azpimarratu du JSKJaren proiektuak aurrera egingo badu, funtsezkoa dela Zuzendaritza Kontseilua osatzen duten kideen inplikazioa eta proiektu honekin bat egitea erabakitzen duten erakunde eta norbanakoen ekimen aktiboa.

**2. Información general relativa al proyecto de la CJJS.** A continuación, la Directora realiza un resumen de los principios y valores que sustentan los objetivos de la CJJS de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU.

La CJJS nace con la vocación de incidir principalmente en tres ámbitos: a) la metodología de enseñanza de las disciplinas jurídicas; b) el modelo de jurista y de las profesiones jurídicas; c) estrategias de discriminación sistémica enraizadas en la sociedad actual.

Para ello, se proponen dos estrategias de intervención: a) la capacitación de quienes participen en el proyecto de la CJJS; y b) la colaboración con el tejido asociativo. Ambas se plantean con un objetivo común e integrado, que sería el de sentar las bases teóricas, metodológicas y de intervención necesarias para la consecución de los objetivos de la CJJS.

Los procesos formativos tienen especial relevancia cuando se trata de aproximar perspectivas hacia un objetivo común encaminado a incidir sobre las prácticas sociales. Para ello, estos deben permitir la aproximación de la actividad académica a la realidad social, para lo cual resulta imprescindible una perspectiva colaborativa tanto entre los miembros de la comunidad académica, como entre estos y los agentes que trabajan fuera de ella.

Se trata de un planteamiento ambicioso que requiere de un soporte material (medios económicos, espacios de trabajo...), pero que, sobre todo, requiere de medios humanos. No se trataría solo de personal dedicado profesionalmente a la clínica, sino de personas que por convicción y compromiso se impliquen en el desarrollo del proyecto, entendido en un sentido amplio.

Obviamente, la CJJS se vería reforzada si pudiera contar con el aval y la colaboración de agentes externos a la universidad. Al efecto, la Dirección de la CJJS ha emprendido una serie de conversaciones con diversos interlocutores (Diputación Foral de Gipuzkoa, Ayuntamiento de San Sebastián, Emakunde, diversas ONGs y asociaciones...), quienes podrían también ofrecer un importante soporte al proyecto

Bide horretan, hainbat urrats eman dira jada.

- Zenbait hitzarmen bideratu dira JSKJaren lankide izan nahi duten zenbait GKErekin.
- Hitzarmen bat lantzen hasia da Bordeleko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin ere.
- Aurki Valentzian egingo diren bi biltzarretan hartuko da parte (urriaren 26 eta 28an): Espainiako Klinika Juridikoen 5. Biltzarrean eta Europako Klinika Juridikoen Sarearen 4. Kongresuan, hain zuzen ere. Espero izatekoa da biltzar hauek baliagarriak izatea aztertzeko zer aukerak dauden lankidetza-harremanak sustatzeko beste klinika batzuekin.

Ahalegin horien guztien emaitza gisa, lankidetza-sare aberats eta emankorra sortzea espero da, agian ez epe labur-laburrean, baina bai epe ertain eta luzera begira.

Nolanahi ere, nabarmendu egiten da JSKJak egitura ahula duela sorburuz, batez ere, erakunde-babes mugatua duelako. Horrek baditu hainbat ondorio. Alderdi ekonomikoan diru-funtsak ez daude bermaturik. Alderdi akademikoan irakasleek zein kolaboratzaileek egingo duten ekarpenak ez du aitortza ofizial jakinik. Azkenik, ez dago argi zer-nolakoa izango den komunitate akademikoak ekimen honi egingo dion harrera Testuinguru honetan, ezinbesteko da Zuzendaritza Batzordeko kideen zein JSKJaren kolaboratzaileen konpromiso aktibo irmoa.

Hori gabe nekez erdietsiko ditu JSKJak sorburuko helburuak. Konpromiso horrek hauxe eskatzen du zehazki: prestakuntza-programa osatzen duten ekitaldietan erregularki hartzea parte, mintegi zein lan-saioetan aktiboki jardutea eta proiektuari eusten dioten printzipio eta hatsarre etikoekin bat egitea. 2016/17 ikasturtean zehar hauek izango dira eskatzen diren konpromiso zehatzak

Además:

- Se ha puesto en marcha el proceso de formalización de convenios de colaboración con diversas ONG y asociaciones.
- Se está trabajando en la elaboración de un convenio con la Clínica Jurídica de la Universidad de Burdeos.
- Está previsto participar tanto en el 5º Encuentro Estatal de Clínicas Jurídicas como en el 4º Congreso de la Red Europea de Clínicas Jurídicas (ENCLE) a celebrar en Valencia entre el 26 y 28 de octubre, con la finalidad de establecer contactos y analizar la posibilidad de formalizar alianzas con otras clínicas jurídicas.

Se espera que el resultado de estas gestiones se concrete en una red de colaboración amplia y rica, que ofrezca a la CJJS de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU un marco sobre el que pueda asentar su proyecto y desarrollar a medio y largo plazo diversas iniciativas.

Se insisten en que la CJJS nace como una estructura débil, dado el limitado reconocimiento institucional con el que cuenta. Esto se traduce en una incertidumbre en el apartado económico, una falta de reconocimiento oficial efectivo de la tarea realizada por parte del profesorado y de las personas colaboradoras de la clínica y, en definitiva y una incierta acogida por parte de la comunidad académica. Estas carencias y limitaciones solo pueden suplirse en las circunstancias actuales mediante un compromiso activo por parte de los miembros del Consejo y de quienes colaboran con la CJJS.

Se espera que dicho compromiso se concrete en una participación regular y comprometida en el programa de formación, una asistencia regular a los seminarios y sesiones de trabajo y un posicionamiento ético coincidente con los postulados y fines sobre los que se asienta el proyecto. Los compromisos para el curso 2016/17 se referirán a las siguientes actividades:

1) Hilero antolatuko diren prestakuntza-ekitaldietan parte hartzea.
2) Ikasturtean zehar otsailean eta apirilean burutuko diren bi mintegietan parte hartzea, Zuzendaritza Batzordeak proposatutako irakurgaiak landuz.
3) Maiatzean Oñatin egingo den Workshopean parte hartzea.

Konpromiso hau nork bere gogoz hartua da. Hori horrela, biziki eskatzen zaie Zuzendaritza Batzordeko kideei zein JSKJaren kolaboratzaileei hartutako konpromisoari euts diezaiotela. Izan ere, hau bereziki garrantzitsua da proiektuaren hastapeneko urte honetan. Hain zuzen lehen urrats hauek funtsezkoak baitira JSKJaren planteamenduaren inguruan kontsentsu bat adosteko.

Ahalegin zintzo hau egiten duten kide guztiek egindako ekarpenaren nolabaiteko aitortza jaso dezatela bermatzearren, ekitaldi guztietan parte-hartze agiria luzatuko zaie.

Nolanahi ere, jakina da ahalegin hau ohiko zereginei eransten zaiela. Hori horrela, ulertzekoa da JSKJaren kide eta kolaboratzaileek aldian-aldian zailtasunak izatea bateratzeko klinikari dagozkion konpromisoak beste ardura batzuekin. Halakoetan biziki eskatzen zaie kideei haien egoeraren berri eman diezaiotela Zuzendaritzari. Kasua balitz, Zuzendaritza Batzordean betetzen duten lekua ere JSKJan diharduen beste kide batek bete ahal izango luke.

**3. JSKJaren fromakuntza-plana 2016/17.** Aurreko puntuan nabarmendutako irizpide eta helburuen ildotik, JSKJaren zuzendaritzak bere lehen ekitaldirako ekintza-plana diseinatu du. Ekintza-plan honek hiru ekintza mota aurreikusten ditu

**3.1. Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak.** Ikasturte honetan 6 plaza eskaini ditu JSKJak. Plaza horiek esleitzeko deialdi bat egin zen ikasturte hasieran, eta jada izendatuta daude aukera hau izango duten ikasleak. JSKJaren web-orrian dago eskuragarri informazio guztia (deialdia eta ebazpena)

1) Asistencia a las actividades formativas de carácter mensual programadas para el curso.
2) Participación en las dos sesiones tipo seminario en las que se expondrán y discutirán las lecturas propuestas por el Consejo de Dirección (febrero y abril)
3) Participación en el Workshop a celebrar en Oñati el próximo mes de mayo.

Tratándose de un compromiso adquirido voluntariamente por los miembros del Consejo de Dirección y los colaboradores de la CJJS, se solicita un esfuerzo para su cumplimiento. Este esfuerzo es especialmente importante en este primer año de andadura, en el cual se debería lograr un cierto consenso acerca de los planteamientos sobre los que la CJJS desarrollará sus actividades.

Con la finalidad de que todos los participantes en este programa cuenten con la posibilidad de obtener algún tipo de reconocimiento a su labor, la Dirección de la CJJS emitirá justificante de participación en todas las actividades programadas.

Obviamente, al tratarse de una tarea añadida a las obligaciones habituales, se entiende perfectamente que pueda haber personas que durante un cierto periodo no puedan participar regularmente de las actividades. En ese caso, se solicita que se comunique la eventualidad a la dirección de la clínica, para que, en su caso, se proceda al relevo en el Consejo de Dirección de la misma

**3. Plan formativo de la CJJS, 2016/17.** Sobre la base de los principios y objetivos del proyecto detallado en el primer punto de la reunión, la Dirección de la CJJS propone al Consejo un plan formativo para el curso 2016/17 que pivota, básicamente, en torno a tres acciones.

**3.1. Desarrollo de Trabajos de Fin de Grado y Trabajos de Fin de Máster.** Para el curso 2016/17 la CJJS ha ofertado 6 plazas para que el alumnado interesado pueda realizar sus TFG/TFM en la clínica. La convocatoria se realizó a principios de curso, y las plazas han sido ya adjudicadas. Se informa de que todos los detalles pueden consultarse en la página web de la Clínica Jurídica

**3.2. Ikastaro eta lantegiak**. Klinika Juridikoak 5-8 ikastaro edota lantegi labur antolatuko ditut ikasturtean zehar; hilean bat edo. Zuzendariak lehen hiru ikastaroen edukia eta datak iragarri zituen. Ikastaro hauek irekiak izango dira, baina, bereziki daude pentsatuak Klinika Juridikoaren komunitatea osatzen duten kideek parte har dezaten.

**3.3. Gogoeta-mintegiak.** Ikasturtean zehar bi mintegi programatu dira, Klinika Juridikoaren komunitatea osatzen duten kideek klinikari buruzko ikuspegiak eta gogoetak parteka ditzaten. Mintegi hauek aurrez banatu eta landuko diren irakurgaien inguruan ardaztuko dira. Aurtengo mintegietarako Klinika Juridikoen eredu eta laneko metodologien inguruko hainbat dokumentu aukeratu dira erreferentzia gisa.

Oinarrizko ekitaldi hauez gain, formatu eta proiekzio zabalagoko ekitaldiak ere aurreikusten dira, horien artean, 2017an Oñatin antolatu den Workshopa. Zuzendaritzak aldian-aldian eguneratuko du informazioa web-orrian, eta, era berean, informazio hori zabalduko du Klinika Juridikoaren komunitatea osatzen duten kideen artean.

**4. Norberak lekarkeena.** Zuzendariak aipatutako gaien harira, ekarpen eta gogoeta interesgarriak egin dira JSKJaren helburu zein dinamikaren inguruan. Zalantza eta galdera batzuk ere argitu dira. Oro har, Zuzendaritza Kontseilua osatzen duten kideen interes eta atxikimenduaren erakusle horiek guztiak.

Horrenbestez, beste gairik ezean, bilerari 13:30etan eman zitzaion amaiera.

**3.2. Cursos y talleres**. Está previsto que a lo largo del curso lectivo se celebren entre 5 y 8 talleres o cursos breves, con una periodicidad, aproximadamente mensual. Se tratará de sesiones breves (2-3 horas) en las que se contará con la presencia de personas expertas en temas concurrentes con los objetivos de la clínica. Las sesiones serán de carácter abierto, pero están pensadas especialmente como parte del plan formativo dedicado a las partes vinculadas en el proyecto de la Clínica Jurídica.

**3.3. Seminarios**. El objetivo de los seminarios es reflexionar de forma colectiva en torno al propio proyecto de la CJJS. Para este curso está prevista la realización de dos sesiones a lo largo del año (febrero y abril). Los seminarios se articularán en torno a una serie de lecturas que se distribuirán entre los participantes, y que servirán de base para el contraste de puntos de vista y reflexiones. En estos dos seminarios se analizarán modelos, metodologías y experiencias de diversas clínicas jurídicas.

Aparte de estas actividades formativas, está previsto que puedan desarrollarse otras acciones de mayor proyección exterior; por ejemplo, el Workshop previsto a celebrar en mayo en Oñati. La dirección de la Clínica Jurídica actualizará regularmente toda la información en la web. También notificará a los miembros de la comunidad de la clínica, cualquier información relevante sobre estas actividades.

**4. Ruegos y preguntas**. A lo largo de la sesión los miembros del Consejo de Dirección compartieron diversas inquietudes, ideas y propuestas. También se cursó alguna pregunta. En conjunto, estas intervenciones denotaron un notable interés por el proyecto.

Así pues, sin más asuntos a tratar, la reunión se dio por finalizada a las 13:30.

Izpta.- Fdo Joseba Ezeiza Ramos
Justizia Sozialaren Aldeko Klinika Juridikoaren Idazkaria
Secretario de la Clínica Jurídica por la Justicia Social